

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Nafarroako hizkuntza politikariak

Xanti Begiristain Madotz • IRUÑEA

UPNko politikariek, bereziki, oso gustukoa dute esatea euskara ez dela politizatu behar. *Politizatu* hitzarekin ulertu behar baldin bada politika egitea, orduan nik uste dut baietz, politizatu behar dela, baina, betiere, hitzaren zentzurik egokienean, hau da, politika egitea. Niri aspaldian irakatsi zidaten bizitza honetan beti egiten dugula politika, alde batera edo bestera; eta nik, uste horretan jarraitzen dut. Gainera, badago adibide argi bat arrazoa ematen didana; alegia, Hizkuntza Politika izeneko kontzeptua. Zergatik eta zertarako asmatu ziren, bada, bestela, izen hori daramaten erakunde edo zuzendaritzak EAEn eta Nafarroan? Zalan-

tzarik gabe, politika egiteko; baina, jakina, politika txukun eta egokia egiteko euskararen alde, gure kasuan. Eta zergatik? Bada, beharrezkoa delako; euskara Euskal Herriko hizkuntzarik zaharrena delako, eta, gaztelera eta frantsesa baino egoera okerragoan dagoenez gero, denok dakizkigun arrazoiengatik, bada, premiazkoa da politika ona egitea bere alde, hots, bi erdara horien maila berberera iritsi arte, gutxienez.

Nafarroan, Iruñean, badugu, bai, Hizkuntza Politika, Nafarroako Gobernuak berak sortua, baina «zalditik astora eta astotik lurrera» joan da, hau da, hasieran gaizki samar, gero okerrago eta orain ezin gaizkiago. Pedro Pegenaute, oraingo Hizkuntza Politikako zuzendaria, Nafarroako Gobernuaren laguntza osoarekin, jokatzeko ari da modurik lotsagabeen eta zikoitzenean,

euskara hondoratu eta lurperatzeko. Adibideak barra-barra ditugu, baina banaka batzuk aipatuko ditut soilik: UEUri, Eusko Ikaskuntzari, Euskaltzaindiari, *Nafarkariari*, *Nabarra* hilabetekariari eta abarri diru laguntza kenduz; *Diario de Navarra*-ri, aldiz, emanez. Euskalerrria Irratia ez legezkatuz. NUPen euskararen funtzionamendua trabatuz. Euskara bultzatzeko erabili beharko zuen dirua gaztelania eta erdal kultura sustatzeko erabiliz, adibidez, inkestak eginez jakiteko zenbat pertsonak hitz egiten duten Nafarroan frantsesez, alemanez eta ingelesez edota Marco Polo eta Cervantesi buruzko ikastaroak antolatuz, eta iaz, Berlingo Expolinguan erdara edo erdaraz ikaste-ko dauden aukeren gainean azalpenak emanez (entzun dudanez, erakustokia jarri omen zuten Eusko Jaurlaritzako erakus-


mahatik ahalik eta urrutien). Joan den urtean ez ziren izan Durangoko Azokan, ez eta Parisko Expolanguesen ere; aurtan ere ez omen dute asmorik joateko azkeneko horretara. Eta esan diguten azken *perla* zera izan da, Nafarroako Gobernuak ez duela diru laguntzarik emanen 4. Mapa Soziolinguistikoa egiteko.

Gogoratu beharra dago Nafarroan zenbat ezaugarrik adierazten diguten bertako jende asko dagoela euskararen alde; konparaziora, ikastolak, D ereduko ikastetxeak, Korrika, Nafarroa Oinez, euskaltegiak, Oinarriak plataforma eta abar eta abar. Honetatik ateratzen den ondorioa: oraingo Hizkuntza Politika sobran dugu; behar duguna, guztiz ezberdina da. Euskara maite duena edo, behintzat, gorrotorik ez diona halako era lotsa emangarrian.

montxo



galdeiozu... ?



ABEL BARRIOLA

Pilotaria

Aurrera begira zeintzuk dira zure asmoak?

Joseba Arano (Iruñea)

Nahi nukeena pilotaren munduan ilusioarekin jarraitzea da, eta, batez ere, aurrera begira helburu handienetako bat eskuz banakako txapelketa da. Goi mailako pilotariek urte guztian duten erregularitasuna edukitzea ere bada nire asmoa. Epe motzera, gustatuko litzaidake eskuz banakako txapelketan zentratzea, eta hori bukatzen denean, bikoteka ongi jokatzeko eta urte osoan erregularitasun bat izatea. Pilotan oso garrantzitsua da erregularitasuna edukitzea; izan ere, hamabi hilabetez jokatu behar da pilotan. Bizitza pertsonalean, berriz, zorientsu izan eta kito.

Otsailaren 5etik aurrera **Mikel Aranburu** • folklorista izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Koldo Almandoz

Ez egitea

Bizitzan har daitekeen posturarik zail, kementsu eta erradikalenaz *ez egitea* da. Baina *ez egitea* ezinezkoa denez, teoria honekin ahalik eta kontsekuenteen izateko aholkurik ematen duenik bada. Lessing-ek dioenez, «izan gaitzen nagiak guztirako, maitasuna eta edaria ez den guztirako, nagia izatea ez den gauza orotarako». *Ez egitea* oso zaila da. Eta suizidioa ez da irtenbidea. *Ez egitea* eta ez izatea ez direlako gauza bera. *Ez egiteko*, izatea beharrezkoa da. Eta erlijioa ere ez da irtenbidea. Nola sinets daiteke gizakiari *ez egitetik* gertuen dagoen hibernazioa ukatu dioten jainkoetan?

«Kontenplazioa nagiaren salbazioa da». Enric Selt-ek esana. Baina hain da zaila kontenplazio soilean kontzentratzea. Saio-

ak egin ditzakegu. Irusta hau *ez egiten* jarraitzeko leihora begira geratuko naiz.

ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap
ttap ttap ttap ttap ttap

ttap ttap Oso zaila da. Kontemplazioarako beste teknika bat garatu behar dut. Etsigarria da. Baina ezin saihestu. Egin behar dut. Esan behar dizuet. Idatzi behar dut... ttap

ttap ttap ttap ttap ttap
euria ari du.